


ANIMALIA ORNODUNAK

Arretaz ikusi datozen bideoak:



2.- Ornodunak

Ornodunek barruko eskeletoa daukate

Ornodunak gorputzari eusteko **barne-eskeletoa** duten animaliak dira. Batzuk uretakoak dira eta beste batzuk lehorrekoak. Gaur egun, 50.000 ornodun-espezie baino gehiago daude, eta **5 taldetan** desberdindu ditzakegu: **HEGAZTIAK, UGAZTUNAK, ARRAINAK, ANFIBIOAK ETA NARRASTIAK.**

Hegaztiak


Hegaztiak lehorreko animaliak dira.

Gorputza lumaz beteta dute, hanketan izan ezik.

Hegaztien goiko gorputz-adarrak **hegoak** dira eta ahoan **mokoa** dute. Guztiak dira **obiparoak**.

Ugaztunak

Gehienak lehorreko animaliak dira eta gutxi batzuk uretakoak. **Azalean ilea dute** (uretakoek ez) eta guztiek **birikak** dituzte. Ugaztun ia **guztiak bibiparoak** dira eta emeak bere **esnearekin** elikatzen ditu beren kumeak.



uretakoak: acuático lehorrekoak: terrestre hegoak: alas
barne-eskeleto: esqueleto interno ugaztuna: mamífero
emea: hembra mokoa: pico luma: pluma

2.- Ornodunak

Arrainak

Uretako animaliak dira. **Gorputza ezkataz beteta** dute, eta gorputz-adarrak **hegalak** dira. Ur azpian arnasa hartzeko **brankiak** dituzte. Gehienak haragijaleak dira eta ia guztiak dira **obiparoak**.

Anfibioak

Anfibioek **azal mehea eta umela** dute, eta ia guztiak **obiparoak** dira. Animalia hauek **metamorfosia** izaten dute: **jaiotzen direnean** uretan bizi dira, ez dute hankarik, **brankien** bidez harnasten dute eta belarjaleak dira. **Helduak** direnean, lehorrean bizi dira, **birikak eta hankak** dituzte eta haragijaleak dira.

Narrastiak

Gehienak lehorrekoak dira (itsas dordokak kenduta). **Azala ezkataz beteta** dute, eta batzuek oskola ere badute. Gehienak lau hanka dituzte (sugeek ez), haragijaleak dira eta ia guztiak dira **obiparoak**.



Anfibioak, arrainak eta narrastiak odol hotzeko animaliak dira.

odol hotzekoa: de sangre fría

hegala: aleta

umela: húmedo/a

ezkata: escama

brankia: branquia

ANIMALIA ORNODUNAK

Bideoak arretaz ikusi eta testua ondo irakurri ostean, egin ariketa hauek.

1) Animalia ornodunek zer dute gorputzari eusteko?

2) Bete hutsuneak animalia bakoitzari dagozkion ezaugarriekin



